

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA
VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

LII: 1-2 (2018)

*Studia Philologica et Diachronica
in honorem Joakin Gorrotxategi*

Vasconica et Aquitanica

Joseba A. Lakarra - Blanca Urgell
(arg. / eds.)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskal gramatika zaharren katalogo baterantz: gramatika eskuizkribatuak

Towards a catalog of old Basque grammars: handwritten grammars

Ricardo Gómez-López
UPV/EHU

Abstract

This contribution aims at offering the list and description of the handwritten Basque grammars from before the 20th century. Following an introduction (§ 1), I will superficially introduce, on the one hand, the lost hand-written grammars (§ 2) and, on the other hand, the ones that not only have been kept but were also printed at their time or have more recently been published (§ 3). After that, I will give a more detailed account of complete old Basque grammars that have reached our days exclusively as manuscripts (§ 4).

Keywords: *Basque grammars, manuscripts, 17th-19th centuries.*

Laburpena

Ekarpen honen helburua XX. mendearen aurretik eskuz idatzitako euskal gramatiken zerrenda eta deskribapena egitea da. Sarrera baten ondoren (§ 1), gaingiroki aurkeztuko ditut, batetik, gramatika eskuizkribatu galduak (§ 2) eta, bestetik, eskuizkribua gorde-tzeaz gain, bere garaian inprimatu zirenak edo berrikiago argitaratu direnak ere (§ 3). Ondoren, xehekiago begiratuko diet eskuizkribuetan soilik gorde zaizkigun euskal gramatika zahar osoei (§ 4).

Hitz gakoak: *euskal gramatikak, eskuizkribuak, XVII-XIX. mendeak.*

1. Sarrera¹

Orain dela hogeitatu urte, 1997an, Joakin Gorrotxategik Koldo Mitxelena Katedra sortu zuen eta urte haren amaieran Katedraren I. Biltzarra antolatu zuen. Biltzar

¹ Artikulu honek hurrengo proiektuen laguntza izan du: «*Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología*» (Espainiako MINECO, FFI2016-76023-P) eta «*Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada*» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT698-13). Artikuluan aipatutako interneteko helbide guztiak 2017/07/15ean kontsultatu dira.

hartan aurkeztu nuen komunikazioan bi urte lehenago Parisen aurkitu nituen lau euskal gramatika eman nituen ezagutzera, gramatika haiek parte hartu zuten lehiaketaren inguruko beste zenbait berrirekin batera (Gómez 2003). Baina artean gramatiken eskuizkribuen argazkiak jaso berriak nituen eta ez nuen aukerarik izan eskuizkribuei buruzko zehaztasun askorik emateko. Gauzak horrela, une aproposa iruditu zait Joakinen omenezko lan hau duela hogeitun urte zertzelatu nituen gramatikei buruz datu gehiago eskaintzeko eta, gramatika gehiago erantsirik, euskal gramatiken katalogoan aurrerapauso txiki bat ematen ahalegintzeko.

Hortaz, nire ekarpen honetan eskuz idatzitako euskal gramatika zahar batzuk deskribatuko ditut. Alde batetik, *euskal* gramatikatzat hartu ditut euskara iturri-hizkuntza edo/eta xede-hizkuntza duten lanak; bestetik, *gramatika* etiketaren barruan sartu ditut gramatika osoak direnak, edo gutxienez gramatika-atal nagusi batzuk (kasu-sistema eta aditz-jokoa) aztertu dituztenak;² azkenik, *zahar* diodanean esan nahi dut xx. mendearen aurreko gramatikak hartu ditudala kontuan. Irizpide horiek buruan, lehenik eta behin, gaingiroki aurkeztuko ditut, batetik, gramatika eskuizkribatu galduak (§ 2) eta, bestetik, eskuizkribua gordetzeaz gain, bere garaian inprimatu zirenak edo berrikiago argitaratu direnak ere (§ 3). Ondoren, xehekiago begiratuko diet eskuizkribuetan soilik gorde zaizkigun euskal gramatika zahar osoei (§ 4).

Ziur naiz ez daudela diren guztiak, ez eta ezagutzen ditudan guztiak ere. Adibidez, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan gramatika zahar batzuen eskuizkribuak daude, baina oraindik ez dut astirik izan funtsak osoki kontsultatzeko eta, beraz, oraingoz artxibo horretako gramatika bakarra aurkeztuko dut (§ 4.3). Azkenik, aitortu behar dut eskainiko ditudan deskribapenak, hein batean, behin-behinekoak direla. Izan ere, eskuizkribuen bertsio digitalizatuak erabili ditut,³ nahiz eta jatorrizko batzuk, Volney Sarikoak esaterako, inoiz begien aurrean izan ditudan; batzuetan, gainera, katalogoetatik ateratako datuez ere baliatu naiz.

2. Gramatika eskuizkribatu galduak

Begien bistako arrazoiengatik, gutxi esan daiteke gramatika galduak buruz. Jakes Belaren, Dominique Bidegarrairen eta Melchor Oihanguren gramatikez dakiguna

² Kanpoan utzi ditut, hortaz, gramatikaren zati bat edo beste aztertzen dutenak, hala nola deklinabideari edo aditzari buruzko lanak. Haien artean daude, esaterako, Joanes Erauskinen aditz taulak (ik. Gómez 2015), Diego Goitiaren ariketak (ik. San Martín 1982), Étienne Joseph Harambillet-en *Regle de déclinaison de la langue basque* (c. 1801; ik. Hurch 2002: 211-278), Miguel Barraikuaren xix. mende hasierako eskuizkribu argitaragabeak (Koldo Mitxelena Kulturunea: 091 BON doc-269; ik. Garmendia 1933: 144-145), Juan Mateo Zabalarren *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*-ren original autografoa (ik. Dodgson 1901: 87), aditzari buruzko *Elementos de la lengua bascongada* izengabea (Koldo Mitxelena Kulturunea, Julio Urkixo Ondarea: J.U. 4261), Duvoisinin gramatika-eskuizkribuak (Baionako Mediateka: Ms. 83, 86, 87) eta Jean Martin Hiribarrenen *Notions générales et élémentaires sur la langue basque* bukatu gabea (Euskal Erakustokia: MS 128) eta *Grammaire basque* (Euskal Erakustokia: MS 117-a), Baionan emandako izenburua gorabehera aditz taula batzuk baizik ez dituenak. Horiei gehitu behar zaizkie zenbait euskalari zaharren paperetan dauden gramatika-lan eta zirriborroak (Humboldt, Bonaparte, van Eys, etab.).

³ Ildo horretan, bakarrik ez bada ere, guztiz txalogarri eta eredugarria iruditzen zait Baionako liburutegia, *Bilketa* atariaren bidez (<http://www.bilketa.eus>), euskal funts zaharrak —hainbat eskuizkribu barne— sarean denon eskura jartzeko egiten ari den lan eskerga.

aurreko lan batean jaso nuen (Gómez 2008). Berrikiago, Aizpuruk (2014) Oihanguren *Arte Cantábrico* eta *Cantabrisimo elucidado* izenburukoez datu gehiago bildu ditu.

Galdutzat hartzen da, halaber, Lorenzo Hervásen aginduz Jose Beobide jesulagunak 1783-1784 inguruan ondu zuen gramatika (Zulaika 2014: 39-40).⁴ Hervásék bi lekutan aipatzen du Beobideren gramatika: «avendo io in mano una eccellentissima gramatica dell'idioma Cantabro, o Biscaglino fatta, e mandatami dal Chiar. Sig. Abbate D. Giuseppe de Beovide» (Hervás 1784: 171) eta

In questo discorso noterò i paesi, ove presentemente si parla il Bascuenze; proverò questo essere stato il linguaggio antico degli Spagnuoli; indicherò la nobile perfezione del suo carattere, sebbene mi riserberò alcune notizie per la gramatica, che di esso ho formato cogli ottimi documenti mandatimi dall'erudito Sig. Ab. D. Giuseppe de Beovide (Hervás 1784: 200-201).

Azkenik, Pablo Astarloaren *Plan de lenguas* aipatu nahi nuke. Astarloaren eskuizkribua galduta bide dago, baina hango edukiak ez zaizkigu erabat ezezagunak. Jakina denez, 1801ean Euskal Herrira egin zuen bidaian Wilhelm von Humboldték *Plan de lenguas* esku artean izan zuen eta haren laburpen bat egin zuen (Humboldt [1801]). Justo Garatek Humboldtén laburpena Waldenburgon kopiatu zuen eta zati batzuk argitaratu zituen (Garate 1935), baita gaztelaniako itzulpena eta ohar batzuk ere (Garate 1961a, 1961b); geroago, Bernhard Hurchek berriz argitaratu du jatorrizko eskuizkribua, Humboldtén euskal lanen bildumaren barruan (2012: 13-52). Horrezaz gain, Krakovian aurkitu ziren Humboldtén paperen artean, prusiarrak enkargatu zuen *Plan de lenguas*-en zati batzuen kopia gorde da, 75 orrialdekoa. Humboldték 1811n jaso zuen kopia, Durangon Astarloaren jatorrizkoa ikusi eta hamar urte geroago. Kopia hori Hurchek eman zuen ezagutzera eta argitara (2002: 43-79) eta, hitzaurrea eta oharrak gaztelaniara itzulita, berriz kaleratu zen (Hurch 2007).

3. Gramatika eskuizkribatu eta argitaratuak

Askotxo dira eskuizkribuetan eta inprimatuetan, bietan, ezagutzen ditugun euskal gramatika-lan zaharrak. Haietako batzuek, gutxienez, argitalpen garaikideak izan zituzten. Gainerakoek, egileen garaian argitaragabe egon baziren ere, edizio modernoak izan dituzte. Ikus ditzagun laburki banan-banan, hurrenkera kronologikoari jarraituz.

3.1. Gorde zaigun gramatika-lan baten eskuizkribu zaharrena Rafael Mikoletaren *Modo Breue de aprender la lengua Vizcayna* hizkuntza-eskuliburua dugu (Mikoleta 1653). Eskuizkribua Londresko British Library-n dago, Harley bildumako MS 6314 signaturapean. Lehenengo edizioa Sampere i Miquel-ek zuzentzen zuen *Revista de ciencias históricas* aldizkarian agertu zen 1880an; eskuizkribuaren transkripzio hutsa dakar, hitzaurrerik ez oharririk gabe, eta, dagoeneko Dodgson ohartu zenez, hainbat akats ditu. Urte berean argitaraldi berezi bat atera zen, Fidel Fitak editaturiko Arakistainen hiztegiekin eta beste lan batzuekin batera (Sampere i Miquel 1880); hori dela eta, askok pentsatu dute Mikoletaren edizioa ere Fitak prestatu zuela, eta litekeena da, baina ez dut iritzi horren aldeko datu ziurrik aurkitu. Bigarren edizioa Dodgson

⁴ Jose Beobideri buruz, ik. Astorgano (2009: 299-300) eta batez ere Zulaika (2014: 38-43).

euskalari britaniarrak argitaratu zuen Sevillan (Dodgson 1887). Transkripzioa askoz zainduagoa egin zuen —nahiz ez den erratarik falta— eta amaieran ohar bat eta adizkitegi bat erantsi zizkion. Berrikiago, Angel Zelaietak bi aldiz argitaratu du Mikoletaren lana (1988, 1995). Hizkuntza-eskuliburuaren zati batzuk bereiz ere argitaratu dira (Mitxelena 1964: 132-135, Sarasola 1983: 188-208).

Badakigu eskuizkribua Bilbotik Ingalaterrara Samuel Sainthill merkatariak eramane zuela eta 1661ean Thomas Browne-ren eskuetan utzi zuela (Dodgson 1899: 201-202). Browne-k Edward semeari utzi zizkion bere eskuizkribuak (Zulaika 2009b: 309) eta, British Libraryren CELM katalogoak dioenez,⁵ Robert Harleyren eskuetara iritsi aurretik eskuizkribuaren azken jabea Thomas Browne-ren ezkonbi-loba Owen Brigstoke izan zen. Hauxe da CELM katalogoak dioskuna:

Harley MS 6314

Folio, 18 leaves. Copy in a scribal hand of a tract by Rafael Micoleta on the language of Vizcaya, 1653 (ff. 1-15), followed by passages in Sir Thomas Browne's hand⁶ on 'The Lords prayer in the cantabrian, visayna or present Bascuenza Languadge out of paulus merula cosmographie part 2 lib 2' (f. 16), 'The Apostles creed in the same Languadge' (f. 17) and (following a pasage in Icelandic in another hand, ?that of the rev. Theodore Jonas) 'The Lords prayer in the present languadge of Island' (f. 18).

*BrT 27: Sir Thomas Browne, Remains and Collectanea

The volume later owned by Sir Thomas Browne's grandson by marriage, Owen Brigstoke (1679-1746).

This MS briefly discussed in Keynes, III, 83, and in N.J. Endicott, 'Sir Thomas Browne, Montpellier, and the tract «Of Languages»', TLS (24 August 1962), p. 645. This MS corresponds to Folio item 7 in the Rawlinson 'Catalogue' of Browne's MSS printed in Wilkin, IV, 467.

Eskuizkribua Gayangosek (1875: 143), Dodgsonen (1898) eta Azkuek (1928) deskribatu dute, azkenak huts frankorekin eta zehaztasun handirik gabe. Goiko aipuan adierazi bezala, eskuizkribuak guztira 18. orri ditu. Mikoletaren lanak 1-15. orriak betetzen ditu eta egitura hau dauka:

1r. f.: [Ataria]

1v. f.: [Owen Brigstoke-ren exlibrisa]

2-4. ff.: Modo breve de sauer declinar los nombres vascongados.

5-9. ff.: Dictionario breve de vocablos los mas usados en vasquense proprio, puestos por horden Alphabetica.

10r. f.: Modo de contar.

10v. f.: Modo de la vizcayna poesia y sus versos.

11-15. ff.: Dialogos en Español y Vasquense.

Mikoletaren gramatika-atalaren edukiak Gómez (2008: 334-335) lanean deskribatu dira eta, hiztegiarekin batera, Gómez & Urgell lanean ere bai (2010: 290-291, 302-303).

⁵ *Catalogue of English Literary Manuscripts 1450-1700*: <http://www.celm-ms.org.uk/repositories/british-library-harley-6000.html>

⁶ Dodgsonen ustez (1898: 36), aldiz, Brigstoke izan zitekeen 16 eta 17. orrietako testuak idatzi zituena.

3.2. Sylvain Pouvreuren eskuizkribuen artean gramatika baten zati batzuk daude. Gramatika-oharrok Frantziako Liburutegi Nazionaleko «Celtique et Basque» bilduman daude, zehazki 8. eskuizkribuko 1-3. orrietan.⁷ Nolanahi ere, Vinsonek (1892: 9) ohartarazi zuen orriak ez zeudela zuzen josita eta alderantzizko ordenan agertzen direla; hau da, 3v-3r-2v-2r-1v-1r.⁸ Alabaina Vinsonek bere bi edizioetan (1881, 1892) egiatan —eta zuzen, nire ustez— argitaratu zuen hurrenkera ez zen hori, beste hau baizik: 3v-3r-2r-2v-1r (1v zuriz dago).

Pentsatu izan da ohar horiek Pouvreauk prestatu nahi zuen gramatika baten zatiak edo zirriborroak direla (Oyharçabal 1989: 63) eta hala ematen dute aditzera bai Pouvreauk idatzi zituen kapitulu eta atal izenburuek eta baita bere hiztegian noiz edo behin erabili zuen *V.Gram.* laburdurak ere; ez dakigu, halere, gramatika hura inoiz burutu zuen. Horren alde mintzo liteke 8. eskuizkribuaren amaieran dagoen datarik gabeko pergaminaoa (245 f. gisa zenbakitua), non Frantziako errege Luis XIV.aren pribilegio egitasmo interesgarri bat agertzen den, Pouvreuren gramatika (elkarrizketak barne), hiztegia eta *Imitazioa* argitaratzeko (Vinson 1892: 97-99).⁹ Haatik, horrek ez digu ziurtatzen gramatika inoiz amaitu zuenik, hiztegiari dagokionez ere ez baitugu inongo frogarik.

Pouvreuren gramatika-ideiez Gómez (2008: 334) eta Gómez & Urgell (2010: 287-288) lanetan aritu gara.

3.3. Nicolas Fréret (1688-1749) historialari eta orientalista frantsesak *Essay d'une Grammaire de la Langue Basque* lana idatzi zuen. Eskuizkribua Humboldték aipatu zuen lehenik, Bilboko gramatikaren amaieran dagoen «Quellen und Hülfsmittel zum Studium der Vaskischen Sprache» izeneko zerrendan (ik. § 3.9). Honela deskribatu zuen:

Diese mir von Hrn. Ste Croix in Paris mitgetheilten Blätter enthalten eine kurze u. nicht vollständige, aber zweckmäßig abgefaßte Grammatik. Der Vf. citirt seine Quellen nicht, doch führt er einigemale Oienharts Zeugniß an, u. man sieht, daß er die Uebersetzung des Neuen Testaments, aus dem er auch hinter der Grammatik, nach der Reihe der Kapitel Vocabeln excerptirt, fleißig benutzt hat. Im Anfange finden sich wenige Unrichtigkeiten; dagegen trifft man auch einige wichtige u. sonst nicht vorkommende Bemerkungen an, wie z.B. über ein Paar größtentheils verloren gegangene Hülfswerba (Humboldt c. 1817: 28; *apud* Hurch 2012: 97).¹⁰

⁷ «Celtique et basque 8. Dictionnaire basque-français, par Silvain Pouvreau, prêtre du diocèse de Bourges», Bibliothèque nationale de France. Archives et manuscrits: <http://archivesetmanuscrits.bnf.fr/ark:/12148/cc99799j>. BnFko fitxak ez dakar eskuizkribuko edukiaren aurkezpen osoa. Deskribapen oso baterako, ik. Vinson (1892: ix-xi).

⁸ Cf.: «Fts. 1 à 3, fragments d'une *Grammaire basque* ; par une erreur du relieur sans doute, les fts. sont dans l'ordre inverse: le premier devrait être le troisième et *vice versa*, et les rectos devraient être les versos».

⁹ Cf.: «Nous a esté exposé | qu'il a traduit en Langue Basque vn Liure qu'il jntitule *Iesusen Imitacionea* sur le latin de Thomas de Kempis Chanoine | Regulier de l'ordre de Saint Augustin : Qu'il a aussi dressé vne *Grammaire Basque et Française avec quelques Dialogues familiers pour | le commerce des deux langues*, Et de plus vn *Dictionnaire Basque, François, Espagnol et Latin*. Lesquels Liures etant approuuez eta iugez | vtils au public il desireroit mettre en lumiere, et faire jmprimer...» (*apud* Vinson 1892: 97).

¹⁰ [Egilearen itz. — Orri hauek, Parisen Ste.-Croix jaunak ezagutzera emandakoek, gramatika labur eta osatugabe bat dute, era metodiko eta erabilgarrian idatzita dauden arren. Egileak ez ditu bere iturriak aipatzen, baina maiz Oienhart-en (*sic*) testigantza dakar. Ikus daiteke Testamentu Berriaren itzulpena erruz baliatu duela, eta hartatik gramatikaren amaieran kokatzen duen hiztegi bat atera du, kapitulu sortaren ondoren. Hasieran akats bakan batzuk daude; hala ere, ohar garrantzitsu batzuk ere badira, beste inon aurkitzen ez direnak, hala nola gehienbat galdu diren bi aditz laguntzailerri buruzkoak.]

Humboldték *Mithridates*-i egindako oharretan aipatu zuen berriz Fréreten lana (1817: 70-71). Azkuek 1922an Berlingo Estatu Liburutegian ikusi zuen eskuizkribua, baina, Buchmann-en katalogoan irakurrita, egileari *Furet* izen okerra eman zion (1922: 66) eta harrezkero izen okerra toki gehiagotara hedatu da.¹¹ Eskuizkribua gero galdu zen eta Krakovian berragertu zen, Humboldtén ondarearen barruan (Coll. ling. fol. 73, 197-216. or.). Hurchek (2002: 81-110) argitaratu du eta, sarrean ematen dituen datuei erreparatuz, ez dago dudarik Fréreten autografoa dela. Zulaikak (2009a: 342), argudio sendoak erabiliz, proposatu du Fréretek 1711-1714 urteen bitartean idatzi zuela bere *Essay*.

Edukiari dagokionez, Fréreten lana funtsean Oihenarten *Notitiako* xiv. kapituluaren (1656: 57-72) laburpena da, huts eta gaizki-ulertu batzuk gorabehera (Gómez 2008: 344).¹²

3.4. Joanes Etxeberri Sarako medikuak *Euskal Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* idatzi zituen, euskaraz eta latinez, bere hiztegi laueledunaren «cimenduac, çainac eta erroac» izan zitezten. Etxeberriren gramatika Zarauzko Eskuizkribua deitu zaionaren barruan dago, hain zuzen Zarauzko frantziskotarren komentuan dagoelako. Gidor Bilbaori (2006) zor diogu Etxeberriren lanen edizio osoa eta azterketa xehea. Eskuizkribuaren deskribapen zehatza ere badakar (2006: clxxxiii-cxcii). Lehenago Urquijok (1907) aztertu eta argitaratu zuen, baina latinezko zati gehiena kendurik, eta Kintanak bertsio askoz ere laburragoa eman zuen argitara, «latinezko deklinazioak eta aditzen parte luze eta aspergarria alde batera utzirik» (Kintana 1972: 15).

Escuarazco hatsapenac-ek Zarauzko Eskuizkribuko 305. orrialdetik 445.era hartzen du, gehiena bi zutabetan idatzita. Hiru zatitan banatuta dago: «Lehenbico parte. Icenen declinacinoez» (307-322. or.), «Bigarren parte. Verboen conjugacinoez» (325-415) eta «Hastapenen hirugarren parte», gramatikaz, zortzi perpaus-atalez eta komunztaduraz (416-445). Lehenengo bi zatietan metahizkuntza euskara da; hirugarrenean, euskara eta latina, bi zutabeetan aurrez aurre.

3.5. Ingalaterran erbesteratua zelarik, Pierre Urtek *Grammaire Cantabrique* idatzi zuen, beste lan batzuen artean. Urteren eskuizkribuak denbora luzez Macclesfield kondearen liburutegian gorde ziren, Oxford eta Londres arteko Shirburn gazteluan; baina 2008an Macclesfield familiako liburutegi osoa enkantean jarri zuten eta urrian gramatika eta hiztegia Sancho el Sabio fundazioak erosi zituen; gaur egun, beraz, Urteren gramatika fundazioaren liburutegian dago (signatura: ZRV 3470).¹³ Gramatika gehiena frantsesez idatzita dago, inoiz latinez eta oso bakanka ingelesez. John Chamberlayne-ren aginduz idatzi zuen Urtek bere gramatika eta zenbait urtez aritu zen la-

¹¹ Esate baterako, *Auñamendi Entziklopedian* sarrera bat egin diote: <http://aunamendi.eusko-ikas-kuntza.eus/eu/furet/ar-63374/>

¹² Eskuizkribuan, gramatika-lanaren ondoren, *Vocabulaire basque, tiré de la traduction du nouveau test. par Leicarraga* euskarazko hitz zerrenda dator, erdal ordainik gabe (Coll. ling. fol. 73, págs. 217-245), eta gero *Exercitatio Grammatica in Versionem Vasconicum Novi Testamenti et Joanne Leicarrague factam* izenburua duten hamabost orrialde hutsik, gauzatu gabeko egitasmo bati dagozkionak (Hurch 2002: 95).

¹³ *Euskal Memoria Digitala - Memoria Digital Vasca*: <http://hdl.handle.net/10357/2105>

nean, 1714 inguruan amaitu zuen arte (Zulaika 2009a: 327-330). Eskuizkribuaren kopia batean oinarriturik, Wentworth Websterrek gramatika osoa argitaratu zuen, lehenik *Bulletin de la Société Ramond* aldizkarian (1895-1900) eta gero separata gisa (1900), gehiena Anton Abadiak ordaindua. Clark & Vinsonek (1893-1894) eta Lakkarrak (1994) gramatikako hiztegiak argitaratu dituzte.

Urterena tamaina handiko lehen euskal gramatika da, 540 orrialde baititu. Zenbakikuntza modernoagoa du, gehienetan aurkietan soilik markatua. Bat nator Zulaiakarekin (2009a: 344), dioelarik Urteren gramatika amaituta eta inprimatzeko prest zegoela. Nolanahi ere, Webster ohartu zen bezala, orrialde batzuk gaizki ordenatuta daude, ziurrenik azalezatatu aurretik norbaitek nahasi zituelako;¹⁴ adibidez, eskuizkribuko 96. orrialdeak 107.ean du jarraipena.

Urteren eskuizkribuak John Rhys zeltalariak ezagutarazi zituen (1884). Geroago, besteak beste, Vinson (1893), Webster (1893) eta Llewelyn (1894: ix-x) arduratu ziren eskuizkribuaren deskribapenaz, zehaztasun maila desberdina izanik, Gramatikaren egituraz eta edukiez eta izan dituen azterketez, ik. Oyharçabal (1989: 68-72) eta Gómez (2008: 337-338). Iturriez, Bilbao (2008) eta Gómez (2009).

3.6. Martin Harriet errege-notarioak bizi zelarik argitaratu zuen Baionan *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* liburua (1741). Berriki, 2017ko otsailean, Koldo Ulibarriri esker jakin nuen *Bilketa* atarian Harrieten gramatikaren eskuizkribu digitalizatua igo zutela.¹⁵ Eskuizkribua Baionako Mediatekan dago (signatura: Res. 22). Liburuki bakarra da eta 420 orrialde ditu, gehi azala. Eskuizkribuak bi zenbakikuntza ditu. Batean, beharbada testu nagusia idatzi ondoren esku berak egindakoan, orrialde guztiak zenbakitu dira, 1etik 446-ra.¹⁶ Besteak, aski berria eta arkatzez eginak, azalak izan ezik orri guztien aurkiak zenbakitzen ditu 1etik 210era, goiko ezkerrean edo erdian. Baionako Mediatekaren katalogoak eskuizkribuak 446 orrialde dituela dio, baina horretarako azken orrialde idatzian dagoen 446 zenbakian oinarritu dira, zenbakikuntzaren hutsak eta barruan falta diren orriak aintzat hartu gabe.

Orri batzuetan ertzak puskatuta daude eta azken bietarik erdia baino ez da gorde. Testua amaitu gabe dago. Osorik irakurtzen den azken orrialdea —444.a edo 208v— liburuko 495.ari dagokio; beraz, liburuko azken hamazazpi orrialdeak falta dira. Gainera, liburuaren hasieran dagoen «Irakurçailleari» hitzaurrea eta amaierako oniritziak falta dira; baina hori da espero dena, halako paratestuak inprimategira bidali ondoren gehitu ohi zirelako.

¹⁴ Azaleztatzeari buruzko datuak Clarkek eman eta Vinsonek argitaratu zituen (1893: 256): «A folio volume of 540 pages bound in whole calf about 1860, by Hatton, of Manchester».

¹⁵ *Bilketa* ataria: <http://gordailu.bilketa.eus/notice.php?q=id:120118>.

¹⁶ Orrialdeen zenbakikuntza horrek zenbait arazo ditu: 134 bi orrialdetan idatzi da, dagokion tokian eta 135.ari legokiokoen tokian; ondorioz, hortik aurrera orrialde bat gehiago kontatu behar da. Hala-ber, 164 ere bi orrialdetan idatzi da; beraz, hortik aurrerakoei orrialde bi gehiago legozkieke. 194. [=196] orrialdetik 227.era jauzi egiten du; tartean, gramatikaren amaiera (194.a liburuko 256.ari dagokio) eta euskara-frantses hiztegiaren hasiera daude (227.a *denbora* sarrerarekin hasten da, liburuko 286.ean dagoena). Berriz ere 347 eta 426 bina orrialdetan idatzi dira. Azkenik 444.etik 446.era zenbakitu gabeko hiru orrialde puskatu daude.

3.7. Pablo Astarloaren *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence* lanak arazo asko izan zituen 1883an inprimatu baino lehen. Astarloak 1805eko martxorako amaitu bide zuen eskuizkribua, *Mercurio de España* aldizkarian idatzi zuenari kasu egiten badiogu: «me hallo preparando para la prensa mis discursos filosóficos, que ya están concluidos» (1805: 430). Astarloa 1806an hil ondoren *Discursos filosóficos* izandako gorabeheraz eta argitalpena berandutzearen arrazoiez, ik. Uriarte (2002: 280-286, 318-334).

Gaur egun eskuizkribu autografoa Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegian dago (signatura: VMSS-9).¹⁷ Hamaika koaderno dira eta *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva* izenburu soila du. Lanaren edukiaz, ik. Gómez (2007: 25-45).

3.8. Pedro Antonio Añibarroren *Gramática Bascongada* Luis Villasantek argitaratu zuen 1969an. Eskuizkribu autografoa Loiolako jesuiten liburutegian dago. Villasantek honako deskribapen hau dakar:

El original manuscrito de la presente Gramática Bascongada, se conserva como hemos dicho, en los PP. Jesuitas de Loyola. Es un libro de 155 × 113 mms., encuadernado en pergamino o cuero, escrito con letra clara. Lleva la firma del autor. Tiene un total de 281 páginas. [...] Aunque el título definitivo del manuscrito es «Gramática Bascongada» es de notar que debajo de dicho título hay otro (tal vez primitivo), tachado, que dice «Conjugaciones Bascongadas» (Villasante 1969: 9).

Urgellek (2001: xxxii-xli) luze eta sakon jardun zuen Añibarroren eskuizkribu argitaragabeen datazioaz. Gramatikari dagokionez, hauxe ondorioztatu zuen: «Beraz, jakintzat eman behar dugu gorde den gramatikaren eskuizkribua, aditaz gainerako eransketak eginda eta txukun jarrita, 1801ez gerokoa dela, agian 1804koa edo ondoko urteetakoa» (2001: xxxv). Hala ere, gauza ziurra da bizkaierazko eta gipuzkerazko aditz-jokoak biltzen zituen aurreko bertsio bat 1801erako bukatua zuela (Urgell 2001: xxxiv-xxxv).

3.9. Wilhelm von Humboldt hizkuntzalari prusiarrak bi euskal gramatikaren zirriborroak idatzi zituen. Bata *Krakoviako gramatika* izenaz ezagutzen dugu (Humboldt c. 1801-1803) eta bestea, *Bilboko gramatika* izenaz (Humboldt c. 1808-1812). Hurchek biak argitaratu ditu Humboldten euskal lanen bilduman (2012: 193-236 eta 237-290). Lehenago, baina, Garatek gaztelaniaz itzulita ezagutarazi zituen, itzulpen nahiko txar eta nahasgarria egin bazuen ere. Krakoviakoari «Gramática vasca» izenburua eman zion (1933: 153-178); Bilboko gramatikari «Análisis de la lengua vasca» izenburua eman zion (1933: 179-197) eta haren eranskin gisa agertzen den «Quellen und Hülfsmittel zum Studium der Vaskischen Sprache» atala testu berezi bat balitz bezala eman zuen, «Fuentes y medios auxiliares para el estudio de la lengua vasca» izenburupean (1933: 135-152).

Krakoviako gramatika Kurt Mueller-Vollmer-ek aurkitu zuen Krakovian 1994an Alexander von Humboldten paperen artean eta gaur egun, Humboldten ondareko beste hainbat lan bezala, Biblioteka Jagiellońskan dago (Coll. ling. fol. 74 signatu-

¹⁷ Katalogoan eskuizkribuaren jatorriari buruzko ohar hau dago: «Formó parte de la biblioteca de Mateo de Erro, heredero de Astarloa, y posteriormente adquirido por la Diputación General del Señorío de Vizcaya en el bienio 1856-1858». http://80.245.0.15/record=b1187055-S5*baq

rako 361-399. orrialdeetan). Hurchek (2012: 195) 1801-1803 bitartean datatu du eskuizkribua, Humboldtten euskal lanen hasierako garaiari dagokiola uste baitu; dataziorako arrazoi estilistiko, terminologiko eta bibliografikoez, ik. Hurch (2004: 345).

Bilboko gramatikaren jatorrizko eskuizkribua galduta dago. Hala ere, Hurchek eta Kerejetak 1996an eskuizkribuaren argazkien fotokopiak aurkitu zituzten Bizkaiko Foru Liburutegian (signatura: MS-imp-8); argazkiak 1932an egin ziren, Justo Garateren aginduz, eta bertan bai Humboldtten eta baita Garateren beraren zenbakikuntzak agertzen dira.¹⁸ Halaber, *Bilboko gramatikaren* zati bat eta *Krakoviako gramatika* osoa Azkuek 1908an Berlinen egindako edo eginarazitako kopia batean agertzen dira —gaur egun Koldo Mitxelena Kulturunean gordea—, «Vasken» izenburua eta J.U. 3519 signatura dituen (Hurch 2012: 243-244).¹⁹ Datazioari dagokionez, Hurchen ustez Humboldttek 1808-1812 urteetan idatzi zuen (2012: 239).

Bi gramatika hauen edukien arteko diferentziaz, ik. El Zarka (2000).

3.10. Humboldtten ondarean dago, halaber, Johann von Charpentier (1786-1855) geologo saxoiak idatzitako *Paradigmen Baskischer Declinationen und Conjugationen, nebst einem kleinen Wörterverzeichnis, in der zu Saint Etienne (Donostij) Hauptdorf des Thales von Baigorri bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart* (Coll. ling. quart. 44 osatzen du). Eskuizkribu autografoa Baigorriko euskararen deskribapen bat da eta Charpentierrek amaitu gabe utzitako Pirinioei buruzko monografia batean sartzeko asmoa zuen. Eskuizkribua Hurchek argitaratu du (2002: 111-172). Dirudieenez, Charpentierrek 1823an idatzi zuen, urte hartan Baigorriara egindako bidaiari luze baten ondoren (Hurch 2002: 118-119). Edukiari dagokionez, gramatika labur batez eta 1.400 bat sarrerako euskara-aleman hiztegi batez osatuta dago; Hurchek edukia- ren deskribapena eta iruzkina egin ditu (2002: 121-123).

Badago Charpentierrek berak idatzitako kopia oso bat, Ginebrako Liburutegian gordea (signatura: Ms. suppl. 1374). Liburutegiko katalogoan honako izenburu hau ezarri diote: *Premier dictionnaire de langue basque; avec éléments de grammaire (environ de 1820)*.²⁰ Hurchen arabera (2002: 124), bi eskuizkribuen arteko diferentziak oso txikiak dira.

3.11. Céline Mounole-k Henry Belsunce bizkondearen gramatika argitaratu eta xeheki aztertu zuen (Mounole 2003). *Tableau analytique et grammatical de la langue Basque*-ren eskuizkribua Belsunce izenpetutako kopia bat da, Bordelen 1858an egina; 265 orrialde ditu eta gaur egun Nafarroako Artxibo Nagusian dago, Bonaparte printzearen ondarean (signatura: m/s B-6). Izan ere, Belsunce Bonaparteri eskaini zion bere lana eta hari bidali zion, zuzenean edo Abadiaren bitartez (Mounole 2003: 19).

¹⁸ Honelako izenburu luzea du Bizkaiko Foru Liburutegiaren katalogoan: «Fotocopia de un manuscrito alemán de Guillermo Humboldt existente en la Biblioteca Berlinesa del Estado Prusiano, es absolutamente inédito y trata del Análisis de la lengua vasca». http://bibliotecaforal.bizkaia.net/record=b1272548-S8*baq

¹⁹ Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia: <http://www.kmliburutegia.net/Record/33206>

²⁰ Bibliothèque de Genève. Département des manuscrits et des archives privées. Manuscrits supplémentaires: Bibliographie, Théologie, Philosophie, Littérature, Recueil de correspondances, Médecine, Sciences, Voyages, Militaire, Sociétés 15e-20e siècles: [http://w3public.ville-ge.ch/bge/odyssee.nsf/Attachments/ms_suppl_theologieframeset.htm/\\$file/ms_suppl_theologieframeset.htm?OpenElement](http://w3public.ville-ge.ch/bge/odyssee.nsf/Attachments/ms_suppl_theologieframeset.htm/$file/ms_suppl_theologieframeset.htm?OpenElement)

Antza denez, eskuizkribua inprimategirako prestatuta zegoen; Belsuncek ahaleginak egin zituen gramatika argitaratzeko —ziurrenik, ahalegin horietako bat eskuizkribua Bonaparteri helaraztea izan zen—, baina ez zuen arrakastarik izan (Mounole 2003: 15).

Gramatikak hiru zati nagusi ditu: I. «Déclinaison», II. «Tableau de la conjugaison» eta III. «Syntaxe» (Mounole 2003: 11-12).

4. Gramatika eskuizkribatu argitaragabeak

4.1. Lubietaren hizkuntza-eskuliburua

Laster argitaratuta ikusteko itxaropenik badugu ere, Joseph Domingo Lubieta donostiarraren *Diccionario en castellano y basquenze que sirve para la enseñanza de la bascongada* hizkuntza-eskuliburuak oraindik argitaragabe dirau. Eskuizkribua Sociedad Bilbainaren Liburutegiko «Sección Vascongada» atalean gordetzen da (signatura: 10163). Nahiz eta erabat ezezaguna ez zen, euskalariontzat ustekabe handi bezain pozgarria izan zen 2006an, Sociedad Bilbainak antolatutako erakusketa batean eta Pruden Gartzari esker, eskuizkribu horren berri izatea.

Bilbaori (2012) zor dizkiogu Lubietaren lanaren deskribapena eta iturrien azterketa. Eskuizkribua 1728ko urriaren 6an datatuta dago; 11 koadernotan 459 orrialde ditu, zenbakitu gabe eta bi zutabetan (gaztelaniaz eta euskaraz) idatziak; letrakera garbi eta irakurterraza erabiltzen du. 2006ko erakusketaren katalogoak datu hauek eman zituen:

Lubietta, Josseph Domingo

Diccionario en Castellano y Basquenze que sirve para la enseñanza de la bascongada (s.l.-s.i.-s.a.)
23 cm.-Piel

Curioso manuscrito inédito que no se puede considerar realmente un diccionario, sino un vocabulario de voces, verbos con sus declinaciones, frases hechas y oraciones enunciadas en castellano, con la misma caligrafía que el resto del diccionario vemos la nota «Sirve este Librillo, para Dn. Juan Francisco de Lullier Comerciantte enesta Ciudad de San Sebastián, parasu enseñanza en la lengua bazcongada, hecha por Joseph Domingo de Lubietta ... a 6 de octubre de 1728». Es el «diccionario» más antiguo de Castellano-Euskera que se guarda en los fondos de la Biblioteca de la Sociedad Bilbaina (Sociedad Bilbaina 2006: 39; *apud* Bilbao 2012: 622-623).

Hizkuntza-eskuliburuetan ohikoak diren hiru osagai nagusiak ditu liburuak (Bilbao 2012: 626-630): (1) gramatika-atala (deklinabidearen hasikinak eta batez ere aditz-jokoak); (2) nomenklatura motako hitz-zerrendak eta esapideak, eta (3) praktikarako hizkuntza-ereduak (esaldi laburrak, elkarrizketak eta irakurgaiak).

Bilbaok eskuizkribuko edukiaren egitura zehatza ere bildu du (2012: 625-626):

1-46. orr.: Esamoldeak eta esapideak, elebitan, gaztelaniaz eta euskaraz.

47-48. orr.: Morroia eta nagusiaren arteko etxe-giroko elkarrizketa laburra, elebitan, gaztelaniaz eta euskaraz.

49-220. orr.: Euskarazko aditz-jokoa, gaztelaniazko ordainekin.

221-248. orr.: «Relación de relaciones públicas.», bertsoan idatzitako kontaktuzuna, elebitan, gaztelaniaz eta euskaraz.

249-303. orr.: Hainbat alorretako hiztegiak: urteko hil-izenak, urtaroak, asteko egunen izenak, orduak, administrazioko eta ejerzituko karguen izenak, musika-tresnak, Elizako karguak, etxea, janariak, ogibideak, materialak, armak, koloreak.

303-378. orr.: Lehenbizi esaldiak, eta gero, mailakaturik, elkarrizketak, hasieran laburrak eta gero luzeagoak.

379-398. orr.: Kristau-ikasbidea, galde-erantzunetan, euskaraz eta gaztelaniaz.

399-428. orr.: Esamoldeak eta esapideak, elebitan, gaztelaniaz eta euskaraz, gaztelaniazkoaren hurrenkera alfabetikoan.

429-445. orr.: Egoera jakin batzuetara egokituriko elkarrizketak: ugazabandrearen etxean, elizan, etxean, hurbilean, laguna ikustean... eta euskara ikasteari buruzko elkarrizketa laburra, elebitan, gaztelaniaz eta euskaraz.

445-459. orr.: Zenbakiak.

4.2. Volney Sariko gramatikak

Sarreran esan bezala, Joakin Gorrotxategik 1997an antolatu zuen Koldo Mitxelena Katedraren I. Biltzarrean, Parisen deitu zen 1829ko Volney Sarian parte hartu zuten bost euskal gramatiken berri eman nuen (Gómez 2003). Horietako bat —saria irabazi zuen Darrigolena, hain zuzen— ez da gainerakoekin batera Frantziako Institutuko artxiboetan gorde. Beste laurak, ordea, Volney Sariaren paperei dagokien 40H10 karpetan aurkitzen dira.

4.2.1. Darrigolek aurkeztu zuen jatorrizko txostena galdu bada ere, haren testua ezagutzen dugu Anton Abadiak egindako kopiari esker (Darrigol 1833 [1828]). Eskuizkribua gaur egun Frantziako Liburutegi Nazionalean dago, «Celtique et Basque» bilduman (signatura: 152) eta *Analyse raisonnée du Système Grammatical de la langue Basque* izenburua du.²¹ Liburukiak [4]-102-[2] orrialde ditu, 20,5 × 13 cm. Eskuizkribuaren lehenengo bi orri idatziak *A* eta *B* foliatu dira, eta hortik aurrera orrialdeak 1etik 98ra zenbakitu dira. Zenbakiak orrialdeko goiko ezkerreko ertzean daude, lehenengo lerroaren aurretixe kokatuak.

Pentsa daiteke Abadiak Institutuan egin zuela kopia, urte berean Brière-k esaten baitigu berak bertan kontsultatu zuela Darrigolen txostena.²² Abadiak lehenengo orrialdean hitz hauek idatzi zituen, Darrigolen jatorrizkoaren berri emateko:

Remarques du copiste.

Le mémoire ci-après transcrit, in quarto de 119 pages, portait sur la couverture ces mots: «reçu le 24 décembre 1829» et plus bas: «Lu 15 février 1830 Silvestre de Sacy», «Lu 26 février (signature illegible)», «Lu: Etienne Quatremère», «Vu; Andrieux». Le billet cacheté sur la couverture portait outre l'épigraphe le nom de l'Auteur: «Darrigol, prêtre, supérieur du grand Séminaire de Bayonne, Basses Pyrenées».²³

²¹ Bibliothèque nationale de France. Archives et manuscrits: <http://archivesetmanuscrits.bnf.fr/ark:/12148/cc100203g>

²² «[J]’ai dû recourir, en conséquence, au manuscrit que se trouve dans les cartons de l’Institut» (Brière 1833: 91). Bide batez, Brière-k «Darrigot» idatzen du beti, Institutuaren 1829ko epai-agirian agertzen den moduan.

²³ Silvestre de Sacy (1758-1838), Etienne Marc Quatremère (1782-1857) eta François Andrieux (1759-1833) 1829ko Volney Saria epaitu zuen batzordeko kideak izan ziren (Gómez 2003: 398).

Kopia 1833ko apirilaren 10ean bukatu zuen Abadiak, eskuizkribuaren amaieran adierazi zuenez, letrakera grekozko sinadura batekin batera: «copié à Paris et fini le 10 avril 1833. A. Θ. δ'Αββαδι ὀδεύς» (Darrigol 1833 [1828]: 98).

Azkenik, Jean Martin Hiribarrenek Abadiaren kopia kopiatu zuen. Datarik gabeko eskuizkribu hori Baionako Euskal Erakustokiko Liburutegian dago, Hiri-barrenen funtsetan (signatura: MS 115).²⁴ Liburukiak 55 orri²⁵ zenbakitu ditu, 17 × 11 cm; zenbakiak arkatzez idatzita eta goiko eskuineko ertzean daude.

4.2.2. Volney Sarira aurkeztu zen bigarren txostena Abbé Segure-ren gramatika izan zen, honako izenburu honekin: *Dissertation sur la langue basque, envoyée au concours propose par l'Académie française, et adressée à Monsieur le Secrétaire de l'Académie française par l'individu dont le nom se trouve dans la partie cachetée de papier*.²⁶ Paristik bertatik bidali zuen eta 1828ko abenduaren 30ean jaso zuten Institutuan. Eskuizkribua letra etzan eta garbiaz idatzita dago. Bi koadernotan biltzen da, 21 × 16 cm.²⁷ Lehen koadernoak paperezko azal bat eta 114 orrialde ditu, 118 orrialde guztira. Bi zenbakikuntza ditu: batean, orriak 1etik 57ra zenbakituta daude, tintaz, aurkiaren goiko ezkerreko ertzean; oso litekeena da Segurek berak egina izatea. Bestean, orrialdeak zenbatu dira, 1etik 110era azaletik hasita, baina zenbakiak aurkietan bakarrik agertzen dira, arkatzez, goiko eskuineko ertzetan.²⁸ Bigarren koadernoak zenbakituta 92 orrialde ditu. Orrialdeak tintaz zenbakituta daude, 3tik 91ra, goiko eta kanpoko ertzetan (azken orrialdea hutsik dago); ziurrenik, Segurek berak egina da.

Segure apaiaz ez dugu datu ziurrik aurkitu. Leopold-ek (1999: 249) «Ségur» dakar eta iradokitzen du Gregorio Arruek 1883an euskaratu zuen *Sur la communion frequente* lanaren Jean Ségur bera izan zitekeela.²⁹

Lehenengo koadernoaren azalean, izenburuaren azpian, Segurek hautatu zuen epigrafea irakur daiteke: «Si l'intelligence de l'homme est l'ouvrage de | l'analyse, que serait-elle sans les langues, | instrumens nécessaires de l'analyse? | (M. Laromiguière)».³⁰ Goiko ezkerreko ertzean, beste esku eta tinta batez: «n.º 2. | reçu le 30 Decembre | 1828. | Lu 22 févr | Le B^{on}. S. de Sacy | Lu le 5 Mars | [*sinadura*: Daru] [*errubrika*] | Lu Quatremere | Vu [*sinadura*: Andrieux] [*errubrika*]». Beheko aldean, erdian: «L'abbé Segure, rue de monsieur, n.º 12».³¹

²⁴ *Bilketa* ataria: <http://gordailu.bilketa.eus/notice.php?q=id:541869>

²⁵ Katalogoak «52 feuillets» dioten arren, orrialdeen zenbakitzeak zenbait arazo ditu: 12. orriak ez du zenbakirik, baina hurrengoak 12 zenbakia du eta horren hurrengoak, 14; 22 zenbakia bi orritan dago, baita 44 zenbakia ere; azken orri zenbakitua, 53.a, hutsik dago.

²⁶ Ohar bedi txostenak egilearen izenik gabe bidali zirela; horrek hurrengo hamarkadetan zenbait txostenen egiletasunari buruzko zalantzak eta iritzi okerrak sorrarazi zituen (ik. Gómez 2003: 393).

²⁷ Volney Sarira aurkeztu eta Frantziako Institutuan gordetako eskuizkribuen neurriak Leopold-en lanetik hartu ditut (1999: 249).

²⁸ Bigarren zenbakikuntzaren arazoak hauek dira: 19 eta 21 zenbakiak dituzten aurkien artean zenbatu gabeko orri bat dago; orobat, 97 eta 99 artean eta 101 eta 103 artean. Ondorioz, guztira sei orrialde zenbakikuntzatik kanpo daude; horiekin eta zenbakitu gabeko atzeko azalarekin osatzen dira eskuizkribuak guztira dituen 118 orrialdeak.

²⁹ *Sarritaco comunioaren gañean, Segur Jaunac francesez eguin zuan liburua, d. Gregorio Arrue-c eusquerara itzulia*, Tolosa: E. López, 1883.

³⁰ Pierre Laromiguière (1756-1837). Filosofo frantsesa, Condillac-en ikaslea eta Destutt de Tracy-ren ideien jarraitzailea. Tolosako Unibertsitateko eta Parisko École Normale-ko irakasle izan zen.

³¹ Pierre-Antoine Bruno Daru (1767-1829) batzordeko beste kide bat izan zen.

Hona hemen Segureren gramatikaren egitura:

1. koaderno³²

3r-11v. ff.: [Sarrera]
 11v-24r. ff.: La déclinaison
 24r-51v. ff.: Du verbe
 51v-[55r]. ff.: Conclusion
 [55v]-57v. ff.: Morceau de poésie basque accompagné d'une traduction française, et d'une version littérale en latin

2. koaderno

1-91. or.: Syntaxe
 1-11. or.: Du substantif
 12-29. or.: De l'adjectif
 29-30. or.: Du participe ou adjectif passif
 30-51.or.: Du verbe
 36-44. or.: Des modes
 44-51. or.: Des temps
 51-61. or.: Des prépositions
 61-63. or.: Des adverbes
 63-69. or.: Des conjonctions
 69-91. or.: De la construction

4.2.3. Hirugarren txostena egilearen izenik gabe aurkeztu zen, izenburu honekin: *Analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque*. Txosten hori ere abenduaren 30ean jaso zuten. Sarreraren amaieran «Urkhuray, le 11 Décembre 1828» lekua eta data agertzen dira. Aurreko txostenak baino letra irakurgaitzagoa du, baina aski garbia halere. Koaderno bakarra da eta [4]-[2]-153-[3] orrialde ditu, 20 × 26 cm. Orrialdeak zenbakitu dira, 1etik 153ra, baina aurretik azal eta atari moduko bi orri daude eta, hauen ondoren, Batzordeko kideei idatzitako gutun bat. Zenbakiak tintaz goiko eta kanpoko ertzetan idatzita daude.

Gramatika honek Batzordearen ohorezko aipamen bat lortu zuen. Epaimahaiak deskribapen gramatikaren egokitasuna goraiatu zuen arren, hasierako atalek dakartzaten etimologia ausartez ez zen fidatzen; onartezinak zirela adierazi zuen:

On remarque dans le N° 3 un grand nombre d'observations et de détails grammaticaux propres à faire juger les procédés en usage dans l'idiôme basque. On peut considérer cette partie du travail de l'auteur comme offrant les matériaux d'une bonne grammaire. Il en faudrait élaguer une foule de rapprochements étymologiques, tous plus ou moins hasardés, qui remplissent les premiers chapitres, et auxquels la Commission ne saurait accorder son approbation (Izengabea 1829: 2).

Aurreko lan batean erakutsi genuenez (Gómez 2003: 395), txosten horren egilea Eugène Garay de Monglave (1796-1873) faltsutzaile ospetsua izan zen. Batzordeko kideei idatzitako gutunean bere buruaz zenbait datu ematen ditu: emaztea eta

³² Zenbakikuntza zaharra hartu dut kontuan, hutsik ez duelako.

hiru seme-alaba ditu, bera bezala euskaldunak; barkamena eskatzen du bere estiloa-gatik, bere ama-hizkuntzaren —hots, euskararen— esamoldeez kutsatuta dagoe-lako, baita Ameriketara ezagututako herrien esamoldeez ere; ez da idazle profesionala. Hala ere, Garay de Monglaveri buruz dakigunaren arabera (ik., besteak beste, Garate 1981), ez zekien euskaraz. Egia da, ordea, Brasilen egon zela, Pedro I.aren armadan soldadu. Idazle izateari dagokionez, Frantziako Liburutegi Nazionaleko katalogoari so eginik, ikus dezakegu 1828rako hainbat liburu eta liburuxkaren egile edo itzul-tzailea izan zela.³³ Ildo horretan, ez da harritzekoa bere txostena egilearen izenik gabe aurkitu izana, kontuan hartzen badugu bere lan horietatik *Biographie pittoresque des quarante de l'Académie française ; par le portier de la maison* izeneko libelo bat egotzi zaiola (1826).

Azalean, goian eta erdian, hauxe dator: «n.º 3 | reçu le 30 Decembre 1828. | Cet mémoire a obtenu une | mention honorable dans la | Séance publique du 24 avril 1829». Horren ondoan, ezkerreko ertzean, beste hau: «Vu [*sinadura*: Andrieux] [*errubrika*] | Lu [*sinadura*: Daru] [*errubrika*] | Lu Quatremere | Lu S. de Sacy. | Lu J-P. Abel Rémusat».³⁴

Atarian, goian eta erdian berriz ere «n.º 3» idatzi da. Beherago izenburua dator eta, horren azpian, honako epigrafe hau: «Cantabrum indoctum juga ferre nostra | horat - Od. ad Sept.»; hau da, Horazioren *Oda ad Septimum* II, 6-2. Beheko aldean, erdian: «Decembre 1828».

Garay de Monglaveren txostenak honako egitura nagusi hau dauka:

[1-2. or.]: [Gutuna Batzordeko kideei]

1-7. or.: Du peuple basque et de l'antiquité de sa langue

7-18. or.: De l'universalité de la langue basque

18-23. or.: Du génie, de la simplicité et de la richesse de la langue basque

24-151. or.: Mécanisme de la langue basque

24. or.: Notions préliminaires

25. or.: Division

25-128. or.: Première partie. La lexicologie

25-31. or.: Première espèce de mots. Le substantif

32-42. or.: Seconde espèce de mots. L'adjectif

42-48. or.: Troisième espèce de mots. Du pronom

48-123. or.: Quatrième espèce de mots. Le verbe

123-126. or.: Cinquième espèce de mots. L'adverbe

126. or.: Sixième espèce de mots. La conjonction

126-127. or.: Septième espèce de mots. L'interjection

127-128. or.: Conclusion de la première partie. De la lexicologie

128-144. or.: Seconde partie. La syntaxe

128-130. or.: Du substantif et de l'adjectif

³³ Besteak beste, *Siège de Cadix par l'armée française* (1823), *Histoire abrégée de Paris* (1824), *Histoire des conspirations des Jésuites contre la maison de Bourbon en France* (1825), *Histoire de l'Espagne* (1825) eta *Histoire de la garde nationale parisienne* (1827); itzulpenen artean, *Marilie. Chants élégiques de Gonzaga* (1825). Garay de Monglaveren idatzitako edo hari egotzitako lanen zerrenda osoago baterako, ik. BnFko erreferentzia fitxa: http://data.bnf.fr/13744002/eugene_garay_de_monglave/

³⁴ Jean-Pierre Abel-Rémusat (1788-1832) batzordeko beste kide bat izan zen.

- 131-134. or.: Du relatif
- 134-135. or.: D'autres pronoms et de leur construction
- 135-143. or.: Du verbe et de sa construction
- 143-144. or.: Des conjonctions circonstancielles
- 144-151. or.: Troisième partie. La prosodie
- 145-146. or.: Nom et pronom
- 146-150. or.: Verbes
- 150-151. or.: Adverbes
- 151-153. or.: [Euskal literaturaz]³⁵

4.2.4. Laugarren txostenak ere *Analyse du Système grammatical de la langue Basque* izenburua du. LaGarde deituraz sinatua, Mauletik bidalita dago eta abenduaren 31n jaso zuten Institutuan. Koaderno bat da, 19,5 × 25 cm. Orrialdeak 1etik 45era zenbakitu dira, azala izan ezik; zenbakiak orrialdeen goiko eta kanpoko ertzetan agertzen dira. Gainera, orrialde bakoitzaren goialdean eta erdian kapitulari dagokion erreferentzia agertzen da, izenburutxo gisa.

Ezin izan dut autore honi buruzko xehetasun ziurrik aurkitu. Leopold-en ustez (1999: 249), Biarnoko De La Garde familia noblekoa izan liteke, baina ez dirudi oso egiantzekoa.

Azalean, goian eta erdian, hauxe dator: «n.º 4. reçu le 31 Decembre 1828. | [*beste esku bat*] De la langue Basque | [*Lagardek idatzia*] in his linguis, quæ sunt innumera-biles | surdi profecto sumus. Cic. Tusc. quest. V.»³⁶ Goiko ezkerreko ertzean hauxe irakurtzen da: «Vu [*sinadura: Andrieux*] [*errubrika*]». Behean eta ezkerrean beste hau: «Lu. Quatremere | Lu. S. de Sacy. | Lu. [*sinadura: Daru*] [*errubrika*] | Lu. J-P. Abel Rémusat».

Lagarderen gramatikaren egitura hurrengo hau da:³⁷

- 1-[2/3]. or.: Introduction
- [2/3]-12. or.: [Chapitre 1.^e]
- [2/3]-6: [1.º Du nom]
- 7-9. or.: 2.º De l'adjectif
- 9-11. or.: 3.º Des articles
- 11-12. or.: 4.º Des nombres
- 12. or.: 5º Des genres
- 13-22. or.: Chapitre 2.^e. Des élémens du discours liés en proposition
- 13-14. or.: 1.º Du sujet et de l'attribut

³⁵ Azken atal honetan oso adierazgarria da kantu herrikoiei buruz dioena, Altabizkarko kantua-ren iruzurra aurreratzen baitu: «...aux chants populaires que la tradition seule nous a conservés et dont j'ai parlé plus haut. J'ai recueilli les plus remarquables, je les ai traduits en prose française et peut-être en 1830 ferai-je paraître les originaux accompagnés de ma version. Il me semble que cette publication, au moins curieuse, est susceptible de quelque succès» (152-153. or.).

³⁶ Epigrafea Zizeronen *Tusculanarum Quaestiones* edo *Tusculanae Disputationes* obrako V. liburuari dagokio eta zati bat falta zaio. Aldiz, Lagarderen txostenarekin batera dagoen gutun-azalean aipua osorik dator: «in his linguis quas non intteligimus, | quæ sunt innumera-biles surdi profecto | sumus».

³⁷ Frantziako Institutuan egin zizkidaten argazkietan 2-3. orrialdeak falta dira. Kortxete artean dau-den izenburuak gramatikako gainerakoetatik ondorioztatu ditut.

- 14-16. or.: 2.º Des prépositions ou des terminaisons qui les remplacent
 16-22. or.: 3.º Du verbe
 23-41. or.: Chapitre 3. Des élémens du langage dans leur rapport avec la nature de la proposition
 23-24. or.: 1.º Des différentes espèces de propositions
 24-26. or.: 2.º Des complémens³⁸
 26-28. or.: 3.º Des articles et des pronoms
 28-41. or.: 4.º Du verbe
 42-45. or.: Considérations générales

4.2.5. Bosgarren txostena frantsesez idatzita aurkeztu ez zen bakarra da: latinez idatzitako *Structura grammatica Linguae Hispanorum veterum indigenae*. Azal go-gorrekoko liburuki bat da eta 172 orrialde ditu, 22 × 26 cm. Orrialdeak zenbakituta daude, baina zenbakiak orrien aurkietan bakarrik agertzen dira, 1etik 169ra, arkatzez idatzita.³⁹ Orrialdeen kanpoaldeetan zabaleraren erdia inguru hartzen duten ertz handiak daude; bertan egileak oharrak, batez ere bibliografikoak, idatzi ditu.

Aurreko batean erakutsi nuenez (Gómez 2003: 396), txosten horren egilea Ernst Moritz Guido Görres (1805-1852) historialari eta poeta alemana izan zen. Lehenengo orrialdean egileak Abel Rémusat-i idatzitako gutun bat dator, non eskatzen baitio bere lana ebaluazio-batzordeari helaraz diezaion. Bestalde, goiko eskuineko ertzean hauxe idatzi da: «n. 5. | Reçu le 31 Decembre | 1828». Bosgarren orrialdean ataria dago; erdian eta lauki batez inguraturik, izenburu osoa agertzen da: «Structura grammatica | Linguae | Hispanorum veterum indigenae | id est | Vasconicae | philosophice explicata | nec non comparata | variis tum Orientis tum Occidentis | linguis». Goian eta eskuinean hau dator: «n. 5 | reçu le 31 Decembre 1828». Goiko ezkerreko ertzean, ordea, beste hau idatzi da: «Lu. Daru | Lu. S. de Sacy | Lu. Quatremere | Vu [sinadura: Andrieux] [errubrika] | Lu. J-P. Abel Rémusat». Izenburuaren azpian gutun-azal ireki bat dago; ziurrenik, barruan egilearen izena zegoen. Gutun-azalaren kanpoaldean epigrafe hau agertzen da: «n.º 5. | Les dialectes variés du langage | humaine sont autant de rayons | par lesquels se reflechit le | soleil qui éclaire notre intelligence». Epigrafe hori 8. orrialdean erdiraturik errepikatzen da. Azkenik, 9. orrialdearen hasieran beste izenburu bat dator, zertxobait desberdina: «De structura atque indole | grammatica | linguae Vasconicae».

168. orrialdean Görresek aurkibide bat eman du:

Proemium.

- Cap. I. De indole phoneticá linguæ Vasconicæ.
 Cap. II. De radicibus verborum, primum in universum, deinde Vasconicis.
 Cap. III. De derivatione et compositione.
 Cap. IV. De verbo et ejus conjugatione.
 Cap. V. De declinatione et postpositionibus.
 Cap. VI. De constructione.

³⁸ Oker ez banago, gramatika horretan lehenengo aldiz erabiltzen da *complément* 'osagarri' terminoa euskalaritzaren barruan.

³⁹ Zenbakikuntzan arazo bakarra ikusi dut: 111 eta 113 artean zenbakitu gabeko orri bat dago.

Dena dela, gramatikaren egitura zehazkixego aurkeztu dezakegu:

9-22. or.: Proemium

23-34. or.: Cap. I. De indole phoneticā linguæ Vasconicæ

35-54. or.: Cap. II. De radicibus verborum, primum in universum, deinde Vasconicis

55-76. or.: Cap. III. De derivatione et compositione

77-135. or.: Cap. IV. De verbo et ejus conjugatione

98-103. or.: De verbi generibus

103-108. or.: De modis verbi Vasconici

109-112. or.: De temporibus verbi

[111bis]-128. or.: De personis

129-135. or.: De peculiari quædam linguæ Vasconicæ participia formandi ratione

135-158. or.: Cap. V. De declinatione et postpositionibus

144-146. or.: De genere

147-149. or.: De numero

149-158. or.: De casibus

158-167. or.: Cap. VI. De constructione

4.3. Hiriarten gramatika argitaragabea

Amaitzeko, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxibotik hartu dudana gramatika bakarraz jardungo dut: *Grammaire basque-française* izenburukoa. Eskuizkribua Piarres Lafitteren funtsetan dago, zehazki Belokeko monasterioaren ondare dokumentalaren barruan, 315. kutzan eta 315-119 signaturapean.

Kutzan dauden zazpi koadernoetatik azken bostetan —hau da, 3.etik 7.ra dauzenetan— banatzen da gramatika. Koaderno guztien orrialdeak ondoz ondo zenbakituta daude, 1etik 557ra: 3. koad. 1-124. or., 4. koad. 117-232. or., 5. koad. 233-348. or., 6. koad. 349-460. or. eta 7. koad. 461-557. or. Zenbait orrialdetan Belokeko monasterioaren zigilua dago: «Institution N.-D. de Bel-loc. Urt (B.-P.)».

Lehenengo koadernoan, datazioaren berri ematen duen datu hau agertzen da: «Commencé | le 2. Janvier | 1832. | Achevé | le 18, fevrier | 1832. t | 1.^r». Jarraian, lehenengo orrialdean, lanaren izenburu osoa dirudiena irakur daiteke:

Grammaire basque-française, | composée des mots les plus naturels, et les plus réguliers, suivant le | dialecte de Labourt et de Basse Navarre, oubrage à portée de tout | tout le monde, utile aux maîtres d'école de village pour enseigner | à leurs ecoliers, aux basques le français, et aux français le basque.

Tout s'en faut que le Basque soit un jargon, comme | certaines personnes la prétendent, qu'au contraire, c'est une langue mère | qui n'est dérivée d'aucune autre, riche, énergique...

Pour bien comprendre les règles de la syntaxe, il | est indispensable qu'au préalable, on apprenne bien les | déclinaisons et les conjugaisons.

Lafitteren artxiboaren inbentarioan gramatika honen egilea «A. Hiriart, Aldudeko apaiza» dela esaten da. Euskalaritzaren historian bada A. Hiriart gramatikari bat, Baionan *Introduction à la langue française et à la langue basque* gramatika didaktikoa

argitaratu zuena (Hiriart 1840). Hala ere, azken hau *maître de pension*⁴⁰ zen Uztaritzen eta, Duvoisinin arabera (ik. Altuna 1987: 88), Iholdin sortua zatekeen. Ez dakit bi A. Hiriart gramatikari izan ziren, ala datu okerren batekin jokatzen dugun. Nolanahi ere den, Belokeko eskuizkribua gaingiroki aztertuta, 1840ko liburuarekiko diferentzia oso handiak nabaritzen dira, baina nire ekarpen honen helburuetatik kanpo geratzen da alde horiek xeheki azaltzea eta, beraz, hurrengo lan baterako utziko ditut.

Eskuizkribuaren 552-557. orrialdeetan edukien taula bat dator. Luze eta zehatza da, ia paradigma bakoitza zein orrialdetan dagoen, edo hiztegiko letra bakoitza zein orrialdetan hasten den adierazten baitu. Beraz, behean saiatu naiz taula laburtzen eta egitura nagusiaren berri ematen duten izenburuak bakarrik aipatu ditut; halaber, orrialde batzuen aipamena zuzendu dut:

Table

Abréviations	3
[Termino batzuen azalpena eta atariko oharrak]	5
Declinaisons	8
Explication pour les verbes	23
Verbe <i>avoir</i>	31
Verbe <i>être</i>	63
Verbe en <i>er</i>	100
Verbe en <i>ir</i> 1 ^{re}	129
Verbe en <i>ir</i> 2 ^d	137
Verbe en <i>ir</i> 3 ^e	145
Verbe en <i>ir</i> 4 ^e	153
Verbe en <i>oir</i>	161
Verbe en <i>re</i> 1 ^{re}	169
Verbe en <i>re</i> 2 ^e	177
Verbe en <i>re</i> 3 ^e	185
Verbe en <i>re</i> 4 ^e pr.	193
Verbe en <i>re</i> 5 ^e pr.	207
Verbe pr. en <i>en</i>	215
Verbe pr. en <i>ir</i>	226
Verbe impersonnel	235
[Aditz trinkoak]	239
Impératifs	397
Tutoiment en basque	402
Nombres	420
Syntaxe	424
Nomenclature et règles	487
[Hiztegia]	489
[Agurtzeko esaldiak]	548
[Zenbakiak frantsesez]	549
[Regles]	551

⁴⁰ Hau da, bere etxean ikasleak apopilo zituen maisua, barnetegi baten antzera.

Eskuizkribua oso txukun idatzita ez badago ere, badirudi egileak inprimatzeko asmoa zuela. Izan ere, taularen ondoren honela dio: «Cet ouvrage, quoique très imparfait, ne laisseroit | d'être très utile pour les commençans, s'il étoit imprimé».

5. Bibliografia

A) Aipatutako eskuizkribuak eta haien argitalpenak

- Añibarro, P. A. [post 1804], *Gramática Bascongada para el uso, y alivio de Párrocos, y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos, y Navarros* (Loiolako Santutegiko Liburutegia). L. Villasanté (arg.), *ASJU* 3, 3-169, eta (*ASJU*ren Gehigarriak, 6), Donostia, 1970.
- Astarloa, P. P. [c. 1801], *Plan de langues*. Eskuizkribu galdua. Ik. Gárate 1935, 1961 eta Hurch (arg.) 2002, 2007.
- , [1805], *Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua* (Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia: VMSS-9), Bilbo. Ik. Astarloa 1883.
- , 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Bilbo: P. Velasco. Berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1988.
- Barraikua, M., s.a., *Colección de varias obritas pertenecientes al vascuence* (Koldo Mitxelena Kulturunea: 091 BON doc-269), Donostia.
- Belsunce, V. de, 1858, *Tableau analytique et grammatical de la langue Basque, par le Vicomte de Belsunce. Bordeaux, 1858* (Nafarroako Artxibo Nagusia: ADN m/s B-6), Iruñea. Ik. Mounole 2003.
- Bilbao, G., 2006, *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Doktorego tesia. Tesikerren argit. 2015: http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gidor_Bilbao_TESIA.pdf.
- Charpentier, J. von, 1823, *Paradigmen Baskischer Declinationen und Conjugationen, nebst einem kleinen Wörterverzeichnis, in der zu Saint Etienne (Donostij) Hauptdorf des Thaless von Baigorri bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart* (Biblioteka Jagiellońska: Coll. ling. quart. 44), Krakovia. Ik. Hurch (arg.), 2002: 111-172.
- , [c. 1823], *Premier dictionnaire de la langue basque par le géologue _____ vers 1820. Têrzeichniss einiger in Baigorri üblicher baskischer Worrter* (Bibliothèque de Genève: Ms. suppl. 1374), Geneva.
- Clark, A. & J. Vinson, 1893-1894, «Vocabulaires basques de Pierre d'Urte», *RLPhC* 26, 312-332; 27, 28-48.
- Darrigol, [J.-P.], 1833 [1828], *Analyse raisonnée du Système Grammatical de la langue Basque* (Bibliothèque Nationale: Celtique et Basque, 152). Paris: Eskuizkribu argitaragabea.
- Dodgson, E. S. (arg.), 1897, *Modo Breve de aprender la lengua vizcayna. Compuesto por el l.^{do} Rafael Micoleta, presbyt.^o de la muy leal y noble Villa de Bilbao. 1653*. Sevilla: F. de P. Díaz.
- Etxeberri, J., 1712, *Escual Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* (Zarauzko frantziskotarren komentua: Caja n.º 20). Ik. Urquijo 1907, Bilbao 2006.
- Fréret, N., [c. 1711-1714], *Essay d'une Grammaire de la Langue Basque* (Biblioteka Jagiellońska: Coll. ling. fol. 73, 197-216), Krakovia. Ik. Hurch (arg.) 2002, 96-110.

- Garate, J., 1933, *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Bilbo: Junta de Cultura Vasca.
- , 1935, «Extracto del *Plan de Lenguas de Astarloa* por Guillermo de Humboldt», *RIEV* 26, 94-121.
- , 1961a, «Pablo de Astarloa. Extracto humboldtiano de su *Plan de lenguas*», *Euskera* 6, 247-276.
- , 1961b, «Notación filológica del *Plan de lenguas de Astarloa*», *Euskera* 6, 277-302.
- [Garay de Monglave, Eugène], 1828, *Analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque* (Archives de l'Institut de France: Prix Volney, 40H10). Paris: Eskuizkribu argitaragabea.
- Görres, E. M. G., 1828, *Structura grammatica Linguae Hispanorum veterum indigenae* (Archives de l'Institut de France: Prix Volney, 40H10). Paris: Eskuizkribu argitaragabea.
- [Harambillet, Étienne Joseph], c. 1801, *Regle de déclinaison de la langue basque. Table des choses le plus usueles en guise de Dictionnaire François et Basque pour un François commençant à apprendre le Basque* (Biblioteka Jagiellońska: Coll. ling. quart. 50), Krakovia. Ik. Hurch 2002, 211-278.
- Harriet, M. [c. 1741], *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (Baionako Mediateka: Res.22), Baiona. Ik. Harriet 1741.
- , 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Bayonan: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet Erregueren Imprimadoriac baitan.
- [Hiriart, A.], 1832, *Grammaire basque-française* (Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Piarres Lafitteren dokumentu bilduma: 315-119). Bilbo: Eskuizkribu argitaragabea.
- Hiribarren, J. M. [a. 1866], [*Analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque. Extraits de la Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*] (Euskal Erakustokia: MS 115). Baiona: Eskuizkribu argitaragabea.
- [a. 1866], [*Grammaire basque*] (Euskal Erakustokia: MS 117-a). Baiona: Eskuizkribu argitaragabea.
- Humboldt, W. von, [1801], *Exzerpt des Plan de lenguas von Pablo Pedro de Astarloa* (Biblioteka Jagiellońska: Coll. ling. fol. 73, 101.1.-23), Krakovia. Ik. Gárate (arg.) 1935, 1961 eta Hurch (arg.), 2012, 13-52.
- [c. 1801-1803], [*Das Grammatikfragment von Krakau: Vaskische Grammatik*] (Biblioteka Jagiellońska: Coll. ling. fol. 74, 361-399), Krakovia. Ik. Hurch (arg.), 2012, 193-236.
- [c. 1808-1812], [*Das Grammatikfragment von Bilbao: Analyse der Vaskischen Sprache*] (Bizkaiko Foru Liburutegia: MS-imp-8), Bilbo. Ik. Hurch (arg.), 2012, 237-290.
- Hurch, B. (arg.), 2002, *Die baskischen Materialien aus dem Nachlaß Wilhelm von Humboldts. Astarloa, Charpentier, Fréret, Aizpitarte und anderes*. Paderborn: Schöningh.
- , 2007, «Materiales vascos del legado de Wilhelm von Humboldt (III): Pablo Pedro de Astarloa y Aguirre: *Plan de lenguas o Gramatica Bascongada en el Dialecto Bizcaino* (fragmento)», *ASJU* 41:1, 29-65.
- (arg.), 2012, *Wilhelm von Humboldt. Baskische Wortstudien und Grammatik. Mit einer Einleitung und Kommentar*. Paderborn: F. Schöningh.
- Lagarde, 1828, *Analyse du Système grammatical de la langue Basque* (Archives de l'Institut de France: Prix Volney, 40H10). Paris: Eskuizkribu argitaragabea.
- Lakarra, J. A., 1994, «Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)», *ASJU* 28:1, 1-178. Berrargit. (*ASJU*ren Gehigarriak, 18). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995.

- Lubieta, J. D., 1728, *Diccionario en Castellano y Bazquence que sirue para la ensenanza de la bascongada* (Sociedad Bilbaina, Sección Vascongada: sign. 10163). Bilbo: Eskuizkribu argitaragabea.
- Mikoleta, R., 1653, *Modo Breue de aprender la lengua Vizcayna* (British Library: Harley MS 6314), Londres. Ik. Sampere y Miquel 1880, Dodgson 1897, Sarasola 1983 eta Zelaieta 1988, 1995.
- Mounole Hiriart-Urruty, C. (arg.), 2003, *C. H. de Belsunce bizkondea: Tableau analytique et grammatical de la langue basque (1858). Azterketa eta edizioa* (Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta, V). Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU [= ASJU 37:2].
- Oihenart, A., 1656, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*. Paris: S. Cramoisy. Bigarren argit. gehitua.
- Pouvreau, S. [c. 1659-1665], *Euskara-frantses(-latin-gaztelaniazko) hiztegia*. Paris.
- Rhys, J., 1884, «The Earl of Macclesfield's Basque mss», *The Academy* 26, 168-169.
- [Sampere y Miquel, Salvador] (arg.), 1880, *Modo breve para aprender la lengua Vizcayna. Compuesto por el Doctor Rafael Micoleta, presbítero de la M. L. y N. villa de Bilbao - 1653*, Girona: V. Dorca [= *Revista de ciencias históricas* 2 (1880), 122-156].
- Segure, A., 1828, *Dissertation sur la langue basque* (Archives de l'Institut de France: Prix Volney, 40H10). Paris: Eskuizkribu argitaragabea.
- Urquijo, J. de, 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*. Paris: P. Geuthner.
- Urte, P. [c. 1714], *Grammaire Cantabrique* (Sancho el Sabio Fundazioa: ZRV 3470), Vitoria-Gasteiz. Ik. Webster 1900.
- Vinson, J., 1881, «Les premiers grammairiens basques. Notes de Sylvain Pouvreau», *RL-PhC* 14, 109-119.
- , 1892, *Les petites oeuvres de Silvain Pouvreau*, Chalon-sur-Saône: L. Marceau. Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1978.
- Webster, W. (arg.), 1900, *Grammaire Cantabrique Basque faite par Pierre d'Urte*, Bagnères-de-Bigorre: D. Bérot. Lehen argit. *Bulletin de la Société Ramond* 1896-1900.
- Zelaieta, A. (arg.), 1988, «Rafael Micoleta Çamudio: *Modo Breue de aprender la lengua vizcayna*», *Hizkuntza eta Literatura* 7, 133-214.
- (arg.), 1995, *Rafael Mikoletaren era llaburra*. Bilbo: AEK.

B) Bibliografia orokorra

- Aizpuru Murua, M. X., 2014, «Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan», *FLV* 118, 321-337.
- Altuna, P., 1987, «Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea», *FLV* 49, 65-96.
- Astarloa, P. P., 1815, «Respuesta apologética á D. Gil Cano Moya sobre la posibilidad del sistema de la significacion natural de letras, sílabas y voces, por Don Pablo Pedro de Astarloa, Presbítero», *Mercurio de España* 1805/03/15, 430-470.
- Azkue, R. M.^a de, 1928, «Manuscritos vascos en Inglaterra», *Euskera* 9, 218-227.
- Brière, [Henri-Louis-Etienne] de, [1833], *Histoire du prix fondé par le Comte de Volney*. Paris: Dondey-Dupré.

- Bilbao, G., 2008, «Claude Maugerren eskuliburua Urteren eredu», in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez (ASJUren Gehigarriak, 51)*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 129-152.
- , 2012, «Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *2nd Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra - II. Congreso de la Cátedra Luis Michelena*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 621-649.
- Dodgson, E. S., 1898, «The Biscayan grammar, vocabulary and bilingual dialogues of Rafael Micoleta», *RLPbC* 31:1, 35-41.
- , 1899, «Mr. Sainthill and his Basque studies», *Notes and Queries* 9:3, 109, 201-202, 432; 9:4, 237-238.
- , 1901, «Quelques manuscrits basques biscayens», *RLPbC* 34:1, 85-101.
- El Zarka, D., 2000, «Aspekte von Wilhelm von Humboldts Sprachdenken im Spiegel seiner baskischen Studien», *Grazer Linguistische Studien* 54, 1-23.
- Garate, J., 1933-34, «Correcciones y adiciones a la 1.^a Sección del segundo volumen de la obra intitulada el *Mithridates* sobre la Lengua Cantábrica ó Vasca por Guillermo de Humboldt en Berlín año de 1817, en la Librería de Voss», *RIEV* 24, 460-487; 25, 87-126.
- , 1981, «El famoso fraude de Aldabizkar y la biografía de su autor por Camille Pitoulet», *FLV* 37, 269-274.
- Garmendia, P., 1933, «La colección de manuscritos del Príncipe Luis Luciano Bonaparte en la Diputación de Guipúzcoa», *RIEV* 24:2, 138-149.
- Gayangos, P. de, 1875, *Catalogue of the manuscripts in the Spanish language in the British Museum*, 1. lib. Londres.
- Gómez, R., 2003, «Lau gramatika eta sari bat», in J. Gorrochategui (arg.), *Basque and (Paleo)Hispanic Studies in the wake of Michelena's work. Proceedings of the First Conference of the Koldo Mitxelena Chair* ('Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak, 3). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 389-404.
- , 2008, «Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak», in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez (ASJUren Gehigarriak, 51)*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 329-349.
- , 2010, «Gehiagio Pierre Urteren gramatikaren iturriez: Lilyren gramatika», *ASJU* 44:2, 335-365.
- , 2015, «XVIII. mendeko aditz taula batzuk: Joanes Erauskinen eskuizkribua», in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU, 277-289.
- & J. A. Lakarra (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak (ASJUren Gehigarriak, 25)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- & B. Urgell, 2010, «Descripción y defensa de la lengua vasca durante los siglos XVI y XVII», in A. M. González Carrillo (arg.), *Post tenebras spero lucem: Los estudios gramaticales en la España medieval y renacentista*. Granada: Universidad de Granada, 257-320.
- Hervás, L., 1784, *Catalogo delle lingue conosciute e notizia della loro affinità, e diversità (Idea dell'Universo, XVII)*. Cesena: G. Biasini.
- Hiriart, A., 1840, *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: Veuve Cluzeau.

- Humboldt, W. von, 1817, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*. Berlin: Vossische Buchhandlung. Bada gazt. itz. ik. Gárate 1933-34.
- Hurch, B., 2004, «Die Formierung der grammatischen Analyse: Die Rolle des Baskischen auf dem Weg Humboldts als Grammatiker. Einige editorische Anmerkungen zu den frühen baskologischen Arbeiten», *ASJU* 38:1, 333-351.
- Izengabea, 1829, *Institut Royal de France. Séance publique annuelle des Quatre Académies [...] Jugement sur le Concours de 1829 et Programme du prix pour l'année 1830*. Paris: F. Didot.
- Leopold, J. (arg.), 1999, *The Prix Volney: Its History and Significance for the Development of Linguistic Research*, 2 lib. Dordrecht-Norwell, Mass.: Kluwer.
- Mitxelena, K., 1964, *Textos Arcaicos Vascos*. Madril: Minotauro. Berrargit. [Sarasola (1983)-rekin batera] (*ASJU*ren Gehigarriak, 11). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 1989. Berrargit. in *OC XII*, 1-197.
- Oyharçabal, B., 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* 23:1, 59-73. Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.), 1992, 91-105.
- San Martin, J., 1982, «Diego Goitiaren euskarazko esaldi bilduma», *Euskera* 27:2, 613-618.
- Sarasola, I., 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* 17, 69-212. Berrargit. [Mitxelena (1964)-rekin batera] (*ASJU*ren Gehigarriak, 11). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 1989.
- Sociedad Bilbaina, 2006, *Catálogo de la exposición cronológica de libros vascos celebrada en los salones de la Sociedad Bilbaina con motivo del 50 aniversario de la creación de la Sección Vascongada de la biblioteca, 1955-2005*, Bilbo.
- Thomas, L., 1894, *The Earliest Translation of the Old Testament into the Basque Language (a fragment) by Pierre d'Urte of St. Jean de Luz circa 1700*. Oxford: Clarendom.
- Uriarte, J. M.^a, 2002, *Pablo Pedro Astarloa (1752-1806). Biografía*. Durango: Durangoko Arte eta Historia Museoa.
- Vinson, J., 1893, «Les manuscrits basques de Pierre d'Urte, de Saint-Jean-de-Luz (Vers 1700)», *RLPhC* 26, 255-269.
- Webster, W., 1893, «Nuevo tesoro del vascuence. Manuscritos labortanos de Pedro de Urte», *Euskal Erria* 29:2, 65-68.
- Zulaika Hernández, J. M., 2009a, «Nuevos datos sobre las obras vascas de Pierre d'Urte», *Estudios de lingüística. Universidad de Alicante* 23, 315-350.
- , 2009b, «El euskara en la obra de Edward Lhuyd (1660-1709)», *Oihenart* 24, 291-334.
- , 2014, «Las fuentes vascas de la *Idea dell'Universo* de Lorenzo Hervás», *Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak* 14, 167-209.

Ricardo Gómez-López

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Letren Fakultatea, UPV/EHU

Unibertsitateko Ibilbidea, 5 - E-01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34 945 013983

ricardo.gomez@ehu.es